

ETXEKO TRATU TXARRAK ETA SEXU ERASOAK
JASATEN DITUZTEN EMAKUMEEI LAGUNTZA HOBEA
EMATEKO ERAKUNDE ARTEKO HITZARMENA
APLIKATZEKO NEURRIAK (2005)

Erakunde arteko Hitzarmenaren Jarraipen Batzordea

Orain aurkezten diren orri hauetan adierazi dira *Etxeko tratu txarrak eta sexu erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko erakunde arteko Hitzarmena* (2001eko urriaren 18an sinatua) ezagutzera emateko eta ezartzeko ardura duten erakundeek 2005. urtean aurrera atera nahi dituzten neurriak. 2005eko apirilaren 20an onartu zuen Jarraipen Batzordeak orain aurkezten den agiri hau, eta barne hartzen dituen neurriak Hitzarmenean parte hartzen duten erakundeen arabera bereizi eta adierazi dira.

1. *EUSKO JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA*

- 1.1. Gaia dela-eta bidezkoa denean, lehendakariak, jendaurrean egiten dituen agerpenetan, berariaz aipatzea emakumeen aurkako indarkeria eta erakunde arteko Hitzarmena.
- 1.2. Etxeko tratu txarren biktima izan daitezkeen pertsonentzako materialak hainbat euskarritan lantzea eta ezagutzera ematea, hartara, tratu txarren biktimei nola jokatu eta nora jo argitzeko, eta hartu beharreko segurtasun-neurriak ezagutzera emateko.
- 1.3. Hitzarmenaren inguruan bestelako erakundeek antolatutako prestakuntza- eta sentsibilizazio-jardueretan (ikastaroetan, jardunaldietan, hitzaldietan eta horrelakoetan) parte hartzea.
- 1.4. Azaroaren 25eko sentsibilizazio-kanpaina diseinatu, finantzatu eta ezagutzera emateko prozesuan parte hartzea, emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean konpromiso politikoa, soziala eta pertsonala indartze aldera.
- 1.5. Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen ondorioz heriotzaren bat denean jarduteko protokoloa betetzea; eta, hortaz, Lehendakaritzako ordezkariaren bat joatea biktima bizi zen herriko Udalak antolatutako gaitzespen-ekitaldietara eta eraso gaitzesteko, Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako erakundeekin lankidetzan, egiten diren gainerako jardueretara.

2. *EUSKO JAURLARITZAREN HERRIZAINGO SAILA*

- 2.1. Euskal Herriko tokian tokiko poliziek etxeko indarkeriari eta sexu-askatasunaren aurkako delituei buruz ezagutzen duten informazio estatistikoaren biltze- eta ustiatze-lana koordinatu, homogeneizatu eta sistematizatzeko araudia lantzen jarraitzea.
- 2.2. Etxeko tratu txarren eta sexu-askatasunaren aurkako delituen biktimei buruz Ertzaintzak ezagutzen duen informazio estatistikoa zabalitzen jarraitzea: delitua egin

- duenari buruzko estatistikako aldagaiak ezartzea (hala nola, sexua, adina, herritartasuna...).
- 2.3. Sei hilabete behin (urtarrilean eta uztailean) eta urtero (urtarrilean), etxeko tratu txarrekin eta sexu-erasoekin zerikusia duten arau-hauste penalen biktimei buruz Ertzaintzak ezagutzen dituen datu estatistikoak Emakunderi igortzea, aurreko denboraldiko datuekin konparazioko datuak sartuta.
 - 2.4. Jaurlaritzak emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan antolatzen dituen sentsibilizazio-ekintzetan parte hartzea.
 - 2.5. Etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren biktimaren arriskua balioesteko tresna bat sortzeko aukerak aztertzea. Tresna horrek baliagarria izan behar du kasu bakoitzean dagoen arriskuaren adierazleak zehazteko, arrisku-mailak bereizteko eta maila bakoitzean behar diren babes-neurri polizialak finkatzeko.
 - 2.6. Aldentzeko ebazpen judiziala jaso duten erasotzaileen biktima guztiei sakelako telefonoak eskaintzea.
 - 2.7. Etxeko indarkeria eta genero-indarkeriaren gaian kalitatea kudeatzeko sistemari buruzko proiektua lantzen jarraitzea.
 - 2.8. Etxeko indarkeria eta genero-indarkeriaren arloko jarduera-prozedurak garatzea eta eguneratzea; prozedurok araudietako aldaketan arabera egokituko dira (adibidez, etxeko tratu txarrei buruz Segurtasun sailburuordeak emandako 48. zenbakiko aginduaren arabera).
 - 2.9. Etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren biktimek autobabeserako neurriak ikasteko prestakuntza-programa bat finkatzea.
 - 2.10. Etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren biktimentzat 2003. urtean abian jarri zen etengabeko babes-programa (bizkartzainak) garatzea.
 - 2.11. Etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren biktimentzat prestatutako prebentzioko jardueren bidez, babes-sistemak ezartzea.
 - 2.12. Fiskaltzarekin lan egiten jarraitzea, eta, horrenbestez, etxeko indarkeriako eta genero-indarkeriako kasuistika aztertzea.
 - 2.13. Etxeko tratu txarrei buruz Segurtasun sailburuordeak emandako 48. zenbakiko Agindua gaurkotzea, eta, hortaz, legeetan egindako azken aldaketei egokitzea, esaterako, Genero-indarkeriaren aurkako babes osoko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak egindakoetara.
 - 2.14. Ertzaintzaren "Harlax" aldizkari teknikoan emakumeen aurkako indarkeriaren gaia aztertzea edo emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunari lotutako edukiak sartzea.
 - 2.15. Genero-indarkeriak sortzen dituen arazoak, eta indarkeria-mota hori gaur egun Euskal Herrian nola dagoen eta zer bilakaera izan duen herritarrei ezagutzera

ematea, horretarako, Herrizaingo Sailaren Prentsa Zerbitzuak datu estatistikoen berri emango du.

- 2.16. Ertzaintzaren baitan informazioa nola edo hala sustatzea, "Ertzaintza Gaur" izeneko argitalpenaren bidez, ertzainek berek gehiago jakin dezaten genero-indarkeriak sortzen dituen arazoek gainean.
- 2.17. Etxeko tratu txarren eta erasoek ondorioz izaten diren heriotzen aurrean erakunde-mailako erantzuna emateko protokoloaren ezarpenean parte hartzea.
- 2.18. Eguneratzeko eta hobetzeko ikastaroei dagokienez, etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak izaten direnean nola jokatu behar den erakusteko prestakuntza emango zaie ertzainei –Segurtasun sailburuak eskatuta– eta udaltzainei –alkateek hala eskatuta–.
- 2.19. Gaiarekin zerikusia duten eskaletan, kategorietan eta espezializazioetan hasteko sarrera-ikastaroetan, etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasan dituzten emakumeei laguntzeko edukiak sartzen jarraitzea.

3. *EUSKO JAURLARITZAREN ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAJETAKO SAILA*

- 3.1. Abegi-baliabideen antolakuntza eta funtzionamendua baldintzak arautzen dituen dekretua bukatzea eta Jaurlaritzaren Kontseiluari aurkeztea, onar dezan.
- 3.2. Etxean tratu txarrak edo sexu-erasoak jasan dituzten emakumeei telefono bidezko etengabeko informazio eta laguntza eskaintzeko zerbitzua kontratatzea eta abian jartzea.
- 3.3. Diru-laguntzak emateko orduan, lehentasuna ematea genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntza eta sostengua eskaintzen dizkieten proiektu sozialei.
- 3.4. Diru-laguntzak banatzeko garaian, lehentasuna ematea gizarte-zerbitzuetako profesionalei arlo honetan prestakuntza emateko diren ikastaroei.
- 3.5. Foru-aldundiek eta udalek etxebizitzak eskuratzeko eta etxeko tratu txarren biktimentzako abegi-etxe modura erabiltzeko duten aukera aurreikusten duten zenbait artikulua eta xedapenetan jasota dauden irizpideei eustea. Irizpideok ondokoetan daude jasota: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak 2004ko azaroaren 26an emandako Aginduaren hirugarren artikuluan, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak 2002ko ekainaren 14an emandako Aginduaren bosgarren artikuluan, eta babes ofizialeko etxebizitzaren erregimenari buruzko abenduaren 30eko 315/2002 Dekretuaren 11.3. artikuluan eta bigarren xedapen gehigarrian.

- 3.6. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak 2004ko azaroaren 26an emandako Aginduaren bigarren artikuluan erabilitako irizpideari eustea; irizpide hori etxebizitzak etxeko tratu txarren biktimek gordetzeari buruzkoa da.
 - 3.7. Erakundeen arteko lankidetzarako formulak eratzea, etxeko tratu txarren biktimei behar dituzten egoitza-baliabideak bermatzeko.
 - 3.8. Hitzarmenaren inguruan bestelako erakundeek antolatutako prestakuntza- eta sentsibilizazio-jardueretan parte hartzea.
 - 3.9. Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta desagerrarazteko erakundeen arteko kanpainan parte hartzea.
 - 3.10. Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen ondorioz izaten diren heriotzen aurrean erakunde-mailako erantzuna emateko protokoloaren ezarpenean parte hartzea.
 - 3.11. Gizarte-zerbitzuetako profesionalek etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean jarduteko gida landu, finantzatu eta ezagutzera emateko lanetan parte hartzea.
 - 3.12. Gizarte-zerbitzuen esparruan datuak biltzeko sistema bateratuaren sorreran parte hartzea.
4. **EUSKO JAURLARITZAREN JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA**
- 4.1. Genero-indarkeriaren aurkako babes osoko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa eraginkorra izan dadin, *Jardueren protokoloa* egitea lurralde historiko bakoitzean. Protokolo horrek orain daudenak ordezkatu ditu, eta hainbat erakunderekin sinatuko da; hona hemen horiek zein diren: probintzia-auzitegiak, epaile dekanok, Fiskaltza, Herrizaingo Saila, tokian tokiko poliziak, profesionalen elkargoak, gizarte-zerbitzuak eta berdintasunaren aldeko erakundeak, eta Justizia Saila.
 - 4.2. Protokolo hori sinatu ondoren, hiruhileko jarraipena egitea, antzematen diren disfuntzioak –horrelakorik aurkitzen bada– berehala zuzendu ahal izateko.
 - 4.3. Genero-indarkeriaren aurkako Lege Integralari buruzko berriazko prestakuntza-ikastaro bi antolatzea, epaile, idazkari judizial eta fiskalei zuzenduta.
 - 4.4. Lurralde historiko bakoitzean, Genero-indarkeriaren aurkako Lege Integralari buruzko ikastaro bat antolatzea, abokatuei zuzenduta.
 - 4.5. Lurralde historiko bakoitzean, Genero-indarkeriaren aurkako Lege Integralari buruzko ikastaro bat antolatzea, Justizia Administrazioako langileei zuzenduta. Emakumearen aurkako indarkeriaz arduratzen diren organo judizialak abian hastean (2005eko uztailean), ikastaro berriak egitea organo horietako langile guztientzat.

- 4.6. Genero Indarkeriaren aurkako Lege Integralari buruzko berriazko prestakuntza-ikastaroak antolatzea, Autonomia Erkidegoko udalerrietako gizarte-zerbitzuetako langile teknikoei zuzenduta.
- 4.7. Etxeko indarkeriaren biktimak babesteko agindua koordinatzeko hiru zentroek dauzkaten baliabide informatikak hobetzea, hartara, babesteko aginduak hobeto kudeatu ahal izan ditzaten.
- 4.8. Aplikazio informatiko bat ezartzea organo judizialei, Babes Aginduen Erregistro Zentralean jaso beharreko datuak bide telematikoen bidez igorri ahal izateko. Hartara, datuok denbora errealean sartu ahal izateko, eta, betiere, datuon konfidentziasuna eta egiazkotasuna bermatuko da.
- 4.9. Ekainaren 29an abian jarriko diren eta emakumearen aurkako indarkeriaz arduratuko diren hiru epaitegietan azpiegiturak, langileak eta baliabide materialak jartzea.
- 4.10. Hitzarmen hau abokatuen elkargoekin eta Legekarien Euskal Kontseiluarekin ebaluatu eta berrikustea, Hitzarmenaren Jarraipen Batzordean, atzematen diren akatsak zuzentzeko —akatsik aurkitzen bada— eta egin beharreko hobekuntzak sartzeko.
- 4.11. Sailean sortutako taldearen lana areagotzea, Hitzarmena abian jartzeko proposatutako jarduera eta hipotesi guztiak berrikusteko bide arrunt gisa; bertan, Delituaren Biktimari Laguntzeko zerbitzuetako, Laguntza Juridikoko zerbitzuetako eta judizialak ez diren gainerako zerbitzu osagarrietako ordezkariak parte hartuko dute. Talde hori Fiskaltzarekin, Ertzaintzarekin eta gainerako poliziekin koordinatuko da, bai eta Hitzarmenaren Jarraipen Batzordearekin eta Hitzarmena bultzatzeko erakunde arteko Talde Teknikoarekin ere.
- 4.12. Biktimari Laguntzeko zerbitzuen funtzionamendu-metodoak hobetzea; eta, horretarako, sistema informatiko berriak abian jartzea, prozesuak homogeneizatzea, txostenak lantzeko eta hitzordua emateko atzerapenak gutxitzea eta abar.
- 4.13. Biktimari Laguntzeko zerbitzuei buruzko triptikoak eta dibulgazioko materiala zabaltzea, hartara, etxeko indarkeria eta sexu-erasoak gertatzen direnean zerbitzuok eskaintzen duten laguntza ezagutzera ematen jarraitzeko.
- 4.14. Giza eskubideen esparruko laguntzen deialdian, arreta berezia eskaintzea diru-laguntza eskatu duten etxeko tratu txarrei eta sexu-erasoei buruzko programei eta jardueri.
- 4.15. Etxeko tratu txarrei eta sexu-erasoei buruzko mintegi bereziak ematen jarraitzea Medikuntzako karrerako auzitegi-medikuntza irakasgaietan, eta Auzitegiako Medikuntzako Euskal Erakundearen jardueraren esparruan.

- 4.16. Bilerak egitea operadore juridikoekin (epaileekin eta fiskalekin) eta polizialekin, Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundearen jardueraren esparruan, era horretan, genero-indarkeriak gaur egun sortzen dituen arazoak aztertzeke –esate baterako, gero eta kasu gehiago dagoela sistema judizialean– eta arazo horiek konpontzeke biderik egokienak bilatzeko.
- 4.17. Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundearen jardueraren esparruan, jarduteko protokolo bat onestea, horrelako kasuetan jarduten duten talde psikosozialen eta auzitegi-medikuntzako zerbitzuen arteko koordinazioa hobetzeko.
- 4.18. Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundearen jardueraren esparruan, zaintzako auzitegiko medikuarentzako jardura-protokoloa aztertzea eta onestea, etxeko genero-indarkeriako kasuetarako eta sexu-erasoetarako.

5. *EUSKO JAURLARITZAREN OSASUN SAILA*

- 5.1. Osasun Protokoloa banatzea, eskuratu ez duten zentroetan edo horrela eskatzen duten horietan.
- 5.2. Kalteak ebaluatzeko medikuaren ebaluazio-orriak berriro argitaratzea eta banatzea, eta, orobat, Guardiako Epaitegira bidaltzea.
- 5.3. Protokoloaren aurkezpena indartzea, eskualdeko zuzendaritzek eta ospitaletako larrialdietako zerbitzuek zorrotz eta zintzo-zintzo bete dezaten.
- 5.4. Orain indarrean dagoen protokoloa berrikustea eta egokitzea, SEMFyC sozietatearen (Familiako eta Komunitateko Medikuntzako Espainiako Sozietatea) jarraibideen arabera.
- 5.5. Erakundeen artean adosten den laguntza eta informazioko materialaren prestakuntza eta banaketan parte hartzea.
- 5.6. Emakumeek jasaten duten indarkeriaren aurkako egunaren 2005eko ekitaldian parte hartzea.
- 5.7. Osasun-zentro publiko eta pribatu guztietan *Sexu-eraso edo -abusuak daudenerako osasun protokoloa* argitaratzea eta banatzea.
- 5.8. Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen ondorioz izaten diren heriotzen aurrean erakunde-mailako erantzuna emateko protokoloaren ezarpenean parte hartzea.

6. *EMAKUNDE / EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA*

- 6.1. Erakunde arteko Hitzarmenaren Jarraipen Batzordeak eta Erakunde arteko Talde Teknikoak egiten duten lana sustatzea eta koordinatzea.

- 6.2. *Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko txostena* eguneratzea, erakunde arteko Hitzarmenaren esparruan garatu diren jardueri dagokienez eta Jarraipen Batzordeak eta Erakunde arteko Talde Teknikoak egindako lanari dagokionez.
- 6.3. Aldiro-aldiri, Emakundek bere web orrian irekitako *Emakumeen aurkako Indarkeria* izeneko sekzioa eguneratzea eta elikatzea, hartara, erakunde arteko Hitzarmenaren esparruan garatu diren jardueri eta Jarraipen Batzordeak egindako lanari buruzko informazio eguneratua eskaintzeko.
- 6.4. 2004. urteari buruzko *Erakunde arteko Hitzarmena aplikatzeko neurrien Plan*ean 2004. urteari dagokionaren berariazko ebaluazioa egitea.
- 6.5. Gizarte-zerbitzuetako profesionalek etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean jarduteko gida lantzeko lanak koordinatzea eta gida horren finantziazioan parte hartzea.
- 6.6. Deustuko Unibertsitateak antolatutako *Emakumeen aurkako Indarkeriaren aurrean esku hartzeko Masterra* diseinatu eta finantzatzen laguntzea
- 6.7. Hitzarmenari lotutako prestakuntza- eta sentsibilizazio-jarduerak antolatzeko aholkularitza tekniko eskaintzea erakunde publikoei eta pribatuei.
- 6.8. Hitzarmenaren inguruan bestelako erakundeek antolatutako prestakuntza-jardueretan eta sentsibilizazio-jardueretan parte hartzea.
- 6.9. Azaroaren 25eko sentsibilizazio-kanpaina koordinatu eta kanpainaren finantziazioan parte hartzea.
- 6.10. Etxeko tratu txarren ondorioz izaten diren heriotzen aurrean erakunde-mailako erantzuna emateko protokoloa koordinatzea eta horren ezarpenean parte hartzea.
- 6.11. Emakunderen diru-laguntzei buruzko dekretuetan, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta desagerrarazteko, eta, orobat, indarkeria-mota horren biktimei laguntzeko jardueri lehentasuna emango dieten balorazio-irizpideak ezartzea.
- 6.12. Lankidetzeta-hitzarmena sinatzea Eudelekin, berdintasunaren aldeko eta emakumeek jasaten duten indarkeriaren aurkako EAEko udalerrien sarea abian jartzeko.
- 6.13. Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei laguntzeko gizarte-sarea sortzen hastea.
- 6.14. Gizarte-zerbitzuen esparruan datuak biltzeko sistema bateratuaren sorreran parte hartzea eta lana koordinatzea.
- 6.15. Arartekoaren "*Emakumeen kontrako indarkeriari erakundeek emandako erantzuna EAE*" izeneko txostenaren analisisa bultzatzea eta koordinatzea.
- 6.16. *Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak* etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei laguntzeko jaso duen laguntza-programa erregulatuko duen araua prestatzeko lana bultzatzea eta koordinatzea.

- 6.17. Gorrek etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean jarduteko gida lantzeko lanak koordinatzea eta gida horren finantziazioan parte hartzea.

7. ARABAKO FORU ALDUNDIA

- 7.1. Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean jarduteko gida landu eta ezagutzera emateko lanetan parte hartzea.
- 7.2. Hitzarmenaren inguruan bestelako erakundeek antolatutako prestakuntza- eta sentsibilizazio-jardueretan (ikastaroetan, jardunaldietan, hitzaldietan eta horrelakoetan) parte hartzea.
- 7.3. Azaroaren 25eko erakundeen arteko sentsibilizazio-kanpaina diseinatu, finantzatu eta ezagutzera emateko lanetan parte hartzea, betiere, egin nahi diren jarduerak zein diren aurrez jakinez gero eta partaidetza ekonomikoa proportzioan hainbanatzen bada.
- 7.4. Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen ondorioz izaten diren heriotzen aurrean erakunde-mailako erantzuna emateko protokoloaren ezarpenean parte hartzea.
- 7.5. Hitzarmenaren Jarraipen Batzordearen koordinazio-bileretan parte hartzea.
- 7.6. Gizarte-zerbitzuetako profesionalek etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean jarduteko gida landu, finantzatu eta ezagutzera emateko lanetan parte hartzea.
- 7.7. *Etxeko tratu txarren biktimentzako babes eta etxebizitza baliabideak hobetzeko programaren garapenean parte hartzea.*
- 7.8. Gizarte-zerbitzuen esparruan datuak biltzeko sistema bateratuaren sorreran parte hartzea.
- 7.9. Arabako Lurralde Historikoan erakunde arteko Hitzarmenaren garapenaren jarraipena egiteko lurralde-mahaia eratzea.
- 7.10. *Genero-indarkeriarako laguntza integrala, eta indarkeria horren prebentzioa eta desagerpena lortzeko egindako esperientzien bilduma eta informazioa izeneko txostena paperean zein CD-ROM euskarrian argitaratu eta zabaltzea.*
- 7.11. Genero-indarkeriari aurre egiteko eta indarkeria-mota horren biktimei laguntzeko zentro integrala sortzeko proiektua landu eta onartzea.
- 7.12. Biktima diren emakumeei laguntza psikologikoa eskaintzeko zerbitzua handitzea, eskaria gero eta handiagoa da eta.
- 7.13. Familia-indarkeria jasaten duten pertsoneri laguntza espezializatua eskaintzeko dauden gainerako zerbitzuak eskaintzen jarraitzea.

- 7.14. Arabako Abokatuen Elkargoarekin egindako lankidetzaz-hitzarmenari eustea eta erasoan eta tratu txarren biktima diren emakumeei Laguntza Juridikoa emateko Zerbitzu Integralak laguntza hobea emateko egin beharreko aldaketak sartzea.
- 7.15. Etxeko indarkeriaren biktimak babesteko agindua dela eta, Arabako Foru Aldundiko gizarte-zerbitzuen jarduteko protokoloaren jarraipena egitea, eta, hala behar izanez gero, protokolo hori gaurkotzea; orobat, horretarako beharrezkoak diren koordinazio-kanalak irekiko dira.
- 7.16. Aldundiak laguntzak emateko egiten dituen deialdien bitartez genero-indarkeriari lotutako prestakuntza-, sentsibilizazio- eta prebentzio-jarduerak diruz laguntzea.
- 7.17. Vitoria-Gasteizko Udalarekin lankidetzan aritzea, genero-indarkeriaren gaineko biltzar bat prestatzeko.
- 7.18. Gizarte-zerbitzuetako eta elkarteeako profesionalei prestakuntza ematea, genero-indarkeriako kasuetan esku hartzeko gaitetan.
- 7.19. *Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko gida* eguneratu, berriro argitaratu eta banatzea, Vitoria-Gasteizko Udalarekin sinatutako lankidetzaz-hitzarmenaren esparruan.
- 7.20. Bisita-zerbitzua antolatu, planifikatu, zuzendu eta gainbegiratzea, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen menpeko zerbitzuetan eta programetan dauden haurrek gurasoekin harremanetan egoteko duten eskubidea errazte eta bermatze aldera, eta harremanak behar diren bermekin izango direla ziurtatuko da.

8. BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

- 8.1. Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei laguntzeko esparruan, eta erakunde arteko Hitzarmenari dagokionez, antolatutako jarduerak diseinatzen eta egiten laguntzea.
- 8.2. Etxeko tratu txarren biktima diren emakumeei eta beren kontura dituzten seme-alabei eskaintzen zaizkien abegi-zentroetako bati baliabide material eta giza baliabide gehiago esleitzea, zentroa indartzearen; eta gaur egungo instalazioei dagokienez, barruko eta kanpoko oztopo arkitektonikoak kentzea, hartara, mugikortasun arazoak dituzten pertsonak sartu eta irten ahal izateko.
- 8.3. *Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren* barruan, genero-indarkeriaren adierazleei buruzko lan-talde bat eratzea, Behatokia osatzen duten hainbat erakundetako ordezkariekin. Talde horren zereginak izango dira: 1) Datuak eskuratzeko aukera ematen duten informazio-iturriak identifikatu eta haietara jotzea. 2) Gaur egun eskura dauden datuak ezagutu eta biltzea. 3) Adierazleak

- diseinatzea, emakumeen aurkako indarkeriaren garrantzia homologatu daitekeen eta denboran erkatu egin daitekeen oinarri batean irudikatze aldera.
- 8.4. Emakumezkoen zuzendutako diru-laguntzak arautzen dituen Foru Dekretuko balorazio-irizpide bezala lehentasuna ematea abegia eta aholkularitza juridikoa zuzenean eskaintzeko diren jardueri.
 - 8.5. Familien Topaketarako Zerbitzua indartzea, eta, horretarako, beste lehiaketa publiko baterako deialdia egitea.
 - 8.6. Gizarte-zerbitzuen esparruan datuak biltzeko sistema bateratuaren sorreran parte hartzea.
 - 8.7. Euskal Autonomia Erkidegoko abegi-zentroyen antolatze eta funtzionatzeko baldintzak eta irizpideak arautzeko araudia prestatzen laguntzea.
 - 8.8. Gizarte-zerbitzuetako profesionalek etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean jarduteko gida ezagutzera emateko lanetan parte hartzea.
 - 8.9. Azaroaren 25eko erakunde arteko sentsibilizazio-kanpainaren finantziazioan parte hartzea.
 - 8.10. Etxeko tratu txarren eta erasoen ondorioz izaten diren heriotzen aurrean erakunde-mailako erantzuna emateko protokoloaren ezarpenean parte hartzea.
 - 8.11. *Etxeko tratu txarren biktimentzako babes eta etxebizitza baliabideak hobetzeko programaren ezarpenean parte hartzea.*
 - 8.12. Deustuko Unibertsitateko Politika Zientzietako eta Soziologiako Fakultateari agindutako bi azterlan prestatzea eta argitaratzea, hain zuzen, honako hauek: *Tratu txarrak jasan dituzten emakumeentzako abegi-etxeen eta egonaldiko zentroyen erabilera eta eskaria* eta *Familien Topaketarako Zerbitzuaren erabilera eta eskaria*.
 - 8.13. Etxeko indarkeriari buruzko inkesta bat egitea Bizkaiko emakumeei.

9. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

- 9.1. Gizarteratzeko Zerbitzuaren barruan, Gipuzkoa osorako larrialdietako zerbitzu bat abian jartzea, hartara, etxeko indarkeriaren eta sexu-erasoen biktimei eta, orobat, larrialdiren batean dauden pertsonen informazioa, sostengua eta laguntza modu profesionalean eman ahal izateko.
- 9.2. Etxeko tratu txarren biktima diren emakumeentzako abegi-etxe bat zabaltzea, herrialde osorako izango dena.
- 9.3. Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalei eta elkartei zuzendutako Inbertsioen Planerako deialdia egiteko foru-dekretua prestatzea; dekretu horretan, abegi-etxeak hobetzeko laguntzak jasoko dira.

- 9.4. Haurren Zerbitzuak Familien Topaketarako Zerbitzua esleitzeko eskaintza egitea, era horretan, zaintzarik ez duten gurasoek haurrei bisitak egiteari buruzko ebazpen judizialak betetzeko.
- 9.5. Gizalde Planaren baitan, laguntza psikologikoa emateko programa, sentsibilizazio-eta prestakuntza-ekintzak, eta Gipuzkoan etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei eskaintzen zaizkien abegi-baliabideak aztertzea.
- 9.6. Gizalde Planaren bitartez, emakumeen aurkako indarkeriaren arloan prebentzio-eta sentsibilizazio-jarduerak egiten dituzten edo biktimei laguntza eta babesa eskaintzen dizkieten elkarteei zuzendutako diru-laguntzak bultzatzea.
- 9.7. Gizarte-zerbitzuen ohiko ordutegitik kanpo egindako larrialdiko abegi guztien jarraipena SOS/Deiak-ekin koordinatzea.
- 9.8. Etxeko tratu txarren biktima izan diren emakumeek gizarte-babeserako zerbitzuak eskuratzeko dituzten aukerak aztertzea: oinarritzko errenta, lanerako programak eta gizarteratzeko programak eta abar.
- 9.9. Lurraldeko lan-batzordean parte hartzea, abokatuekin, Biktimari Laguntzeko Zerbitzuarekin, Laguntza Juridikoko Zerbitzuarekin, Ertzaintzarekin, udaletako gizarte-langileekin eta bestelakoekin.
- 9.10. Ertzaintza, Biktimari Laguntzeko Zerbitzua eta Laguntza Juridikoko Zerbitzuarekin egin beharreko koordinazio-bilerak sistematizatzea, eta aldian-aldian udal-zerbitzuekin bilerak egitea, hartara, irizpideak bateratu, zailtasunak aztertu, aldaketak proposatu eta abarrerako.
- 9.11. Jarduteko protokoloak lantzeko prozesuan parte hartzea, Emakundek deitutako lan-mahaietan erakundeen arteko koordinazioa hobetzeko.
- 9.12. Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko prestakuntza-jarduerak egitea, udaletako gizarte-zerbitzuetako profesionalentzat.
- 9.13. Prestakuntza-jarduerak egitea udaletako gizarte-zerbitzuetako profesionalentzat, 2004ko abenduan onetsi zen Genero-indarkeriaren aurkako babes osoko neurriei buruzko Lege Organiko berriak gizarte-zerbitzuetan izan duen eragina eta eragin dituen aldaketak barne hartuta.
- 9.14. Prestakuntza-jarduerak egitea biktimei sostengua eman eta laguntzeko figura sortzeko; figura hori sortzeak Gipuzkoako Lurralde Historikoan dagoen babes-sarea hobetuko du.
- 9.15. Udal gizarte-zerbitzuetako profesionalak etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean jarduteko gida finantzatu eta ezagutzera emateko lanetan parte hartzea.
- 9.16. Azaroaren 25eko erakundeen arteko sentsibilizazio-kanpaina diseinatu, finantzatu eta ezagutzera emateko prozesuan parte hartzea.

- 9.17. *Etxeko tratu txarren biktimentzako babes eta etxebizitza baliabideak hobetzeko programa* ezartzen parte hartzea.
- 9.18. Datuak biltzeko sistema bateratuaren sorreran parte hartzea, hartara, informazioa sistematizatu ahal izateko eta Autonomia Erkidegoko errealitatea hobeto ezagutu ahal izateko.
- 9.19. Etxeko tratu txarren eta erasoen ondorioz izaten diren heriotzen aurrean erakunde-mailako erantzuna emateko protokoloaren ezarpenean parte hartzea.

10. EUDEL / EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA

- 10.1. EUDEL-en web orriaren bidez, erakunde arteko Hitzarmen hau eta EUDEL-en ordezkariak duten partaidetzako organoek garatzen eta lantzen dituzten gainerako jarduerak eta protokoloak ezagutzera ematea.
- 10.2. Arlo honi lotuta dauden lege-xedapenen ondorioz adosten eta xedatzen diren ekintzak gauzatzeko zuzeneko ardura duten udal-langileen prestakuntzarako guneak proposatzen jarraitzea.
- 10.3. Arlo honetan aurkezten diren legegintzako ekimenak eta gainerako testu arau-emaileak aztertzea, eta haiek hobetzeko ekarpenak eta oharrak egitea.
- 10.4. EUDEL-en web orriaren bidez, *Gizarte-zerbitzuen eremuan, etxeko indarkeriaren biktimak babesteko aginduaren eraginkortasuna bermatzeko koordinazio protokoloa* ezagutzera ematea.
- 10.5. EUDEL-en web orriaren bidez, *Etxeko tratu txarren biktimentzako babes eta etxebizitza baliabideak hobetzeko programa* ezagutzera ematea.
- 10.6. Datuak biltzeko sistema bateratuaren sorreran parte hartzea; hartara, izan daitezkeen indarkeria kasuak hobeto koordinatzeko eta kasu bakoitza dagokion erakundera hobeto bideratzeko, eta Autonomia Erkidegoko errealitatea hobeto ezagutzeko.
- 10.7. Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen ondorioz izaten diren heriotzen aurrean erakunde-mailako erantzuna emateko protokoloaren ezarpenean parte hartzea.
- 10.8. Berdintasunaren aldeko eta emakumeek jasaten duten indarkeriaren aurkako udalerrien sarea eratzea.
- 10.9. Erakunde arteko Hitzarmenean jasota dauden batzordeetan eta azpibatzerietan parte hartzea.

11. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AUZITEGI NAGUSIAREN FISKALTZA

- 11.1. Erabakitzen diren zuhertasunezko neurriak berehala jakinaraztea Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailari, hartara, neurriok betetzen diren zaintzeaz arduratzen diren polizia agintariek behar bezala jasota izan ditzaten eta betetzen direla kontrola ditzaten.
- 11.2. Ertzaintzaren lurralde-burutzekin hileroko bilerak egitea, hartara, salatu diren etxeko tratu txarren kasuen artean, arriskua dela eta larrienak diren kasuen jarraipena egiteko eta, hala behar denean, zuhertasunezko neurri zorrotzagoak eskatzeko.
- 11.3. Ahal denean, Hitzarmenaren inguruan bestelako erakundeek antolatutako prestakuntza-jardueretan eta sentsibilizazio-jardueretan (ikastaroetan, jardunaldietan, hitzaldietan eta horrelakoetan) parte hartzea.

12. LEGEKARIEN EUSKAL KONTSEILUA

- 12.1. Etxeko indarkeriaren eta sexu-erasoen inguruko prestakuntza-ikastaroak antolatzea abokatuentzat; ikastaro horiek nahitaez egin beharko dira, bai berriazko ofizioko txandan izena emateko, bai eta txanda horretan jarraitzeko ere.
- 12.2. Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Sailarekin eta arlo honetan inplikaturik dauden beste erakunde batzuekin hasitako lankidetzari jarraipena ematea.
- 12.3. Elkargo bakoitzaren 24 orduko Zaintza Zerbitzuaren eta berriki sortu den berriazko ofizioko txandaren publizitatea egitea eta ezagutzera ematea.
- 12.4. Abokatutzako profesionalei etxeko indarkeriaren eta sexu-erasoen gaineko prestakuntza emateko edo beste helburu baterako materialak lantzen dituzten erakundeekin eta/edo instituzioekin lankidetzan aritzea.
- 12.5. Hitzarmenaren inguruan bestelako erakundeek antolatutako prestakuntza- eta sentsibilizazio-jardueretan (ikastaroetan, jardunaldietan, hitzaldietan eta horrelakoetan) parte hartzea.
- 12.6. Azaroaren 25eko sentsibilizazio-kanpaina diseinatu eta ezagutzera emateko prozesuan parte hartzea.
- 12.7. Etxeko tratu txarren ondorioz izaten diren heriotzen aurrean erakunde-mailako erantzuna emateko protokoloaren ezarpenean parte hartzea.

13. SENDAGILEEN EUSKAL KONTSEILUA

- 13.1. Elkargoko kideak genero-indarkeriaren gaitan sentsibilizatzeko lanean jarraitzea, eta profesionali aldiro banatzen zaien aldizkariaren zenbakietan Osasun Protokoloa dagoela gogoraraztea.
- 13.2. Sendagileen Euskal Kontseiluak Jarraipen Batzordearen bileretara joaten eta horietan parte hartzen jarraitzea.
- 13.3. Etxeko tratu txarren ondorioz izaten diren heriotzen aurrean erakunde-mailako erantzuna emateko protokoloaren ezarpenean parte hartzea.

Emakunde, 2005eko apirilaren 20a